

LAUDIO

# ikastola

HAUR HEZKUNTZA

# 0-6 urte

**(LIBURUXKA HONETAN ATERATZEN DIREN ARGAZKI GUZTIAK LAUDIO IKASTOLAKO HHko GELETAN ATERA DIRA. BERTON AGERTZEN DIREN JARRERAK EGUNEROKO EKIMENAK DITUGU GURE IKASTOLAN).**

*Argazkiak: Optura argazkigintza*

Mila esker argazkietan agertzeko baimena eman diguzuen guztiei.

© LAUDIO IKASTOLA, 2020

| | |
|---|---|
| 1.- SARRERA | 8 |
| 2.- ETXETIK IKASTOLARA | 12 |
| 3.- 0-3 URTE | 18 |
| 4.- 3-6 URTE | 24 |
| 5.- OINARRI PEDAGOGIKOAK | 30 |
| 6.- IRTEERA ETA BARNETEGIAK | 36 |
| 7.- FUNTZIONAMENDUA | 38 |
| 8.- HARREMAN BIDEAK | 42 |





# HEZITZEKO BESTE MODU BAT:

## *ikaskuntza aktiboa*

*Besoetako umeak Ikastolara eramaten ditugunetik aldatzen diren eran, Ikastola ere bere lana eta egitekoa aldatuz joan da.*

*Haurraren garapena beste begirada batez aztertu dugu eta hori gure oinarri bihurtu dugu.*

## PERTSONEN LEHEN URTEETAN GARATZEN DIRA NORTASUN OINARRIAK.

*Haurrak jaiotzatik hazteko, heltzeko eta ikasteko berezko trebetasun apartak ditu.*

*Adin tarte honetan, umeen eta gurasoen beharrizanei hobeto erantzuteko trebatzen ari gara Laudio Ikastolako hezitzaileok.*


RACING
SAFARI
FRUTÍNTER

*Haur Hezkuntzak 0 eta 6 urte bitarteko haurren eskolaratzerako etapa da eta haurren adina kontuan hartuta bi zikloetan bereizten dugu.*

# LEHEN ZIKLOA (HH1)

*0-3 urteko haurrak*



# BIGARREN ZIKLOA (HH2)

*3-6 urteko haurrak*



# ETXETIK IKASTOLARA



*Haur bakoitza etxeko girotik aldendu eta Ikastolan, leku ezezagun batean, integratu behar da. Baliabide ugari eskainiko zaizkio toki berri honetan, aurkituko dituen aukera berriekin gozatzeko gai izan dadin. Honekin batera, haurren ongizatea bermatu eta, prozesu hau ahalik eta atseginen izan dadin, giro lasaia eta egonkorra sortu nahi dugu Ikastolan.*

*Ikastolara etortzean, haurrari mundu berri batean egotearen esperientzia zabaltzen zaio. Berarentzat aldaketa handia da, bertan egoera ezezagunak biziko dituelako: pertsona ezberdinak ezagutuko ditu (irakasleak, kideak ...), hau da, bat-batean, talde handi baten partaide bihurtzeko gaitasunak eta estrategiak eraiki beharko ditu.*

*Esperientzia hauek bere nortasuna eraikitzeko baliagarriak izango dira. Ikastolaren lana haur bakoitzaren beharrizanetara baliabide egokituak eskaintzea da: egunerokoa aurrera eraman dezakeen espazio egoki bat, esploratzen egoteko material anitza, esperimentazioan aritzeko eremuak, gune lasaiak, errepresentazio eta jolas sinbolikorako baliabideak...*

# HAUR HEZKUNTZAK BEREBIZIKO GARRANTZIA DU HAURRAREN GARAPEN OSOAN

ETAPA HONETAN GARATZEN HASTEN DIRA ADIMENAREN GAITASUNAK, NORTASUNAREN EZAUGARRIAK, GORPUTZAREN AHALMENAK ETA GIZARTERATZEKO ZEIN HARREMANETARAKO HASTAPENAK.



*Lehen urte hauetan, familiak zeregin handia du Ikastolarekin batera haurraren hezkuntzan. Laudio Ikastolaren proiektuan zehatz adierazten dira gurasoekiko harremana, elkarlana eta interbentzioaren nondik norakoak.*

*Bidelagun garen praktika pedagogiko honen oinarriak ondoko hauek dira:*

PROBOKAZIOAK/PROPOSAMENAK
JOLASA
BEHAKETA
ESPERIMENTAZIOA

ETA HORIEK GUZTIAK BAI BAKARKA, BAI TALDEKA, EGITEKOAK DIRA.

*Konfiantzaren Pedagogiak proposatutakoari helduz, Haur Hezkuntzako eraikinak berregituratu eta umeen beharretara egokitutako espazio moldagarriak sortu ditugu. Konfiantza hori eraikitzen laguntzeko baldintza egokiak sortzea da Ikastolako hezitzaileen egiteko nagusiena.*

*Abiapuntu hori du oinarrian Haur Hezkuntzak. Horretarako haurren zaintza eta behaketa gakoak izango dira, baita espazio zein baliabideak proiektu pedagogikoaren zerbitzura jartzea ere.*





**HAURRAK, ZAILTASUNAK KUDEATU ETA BERE GAITASUN GUZTIAK GARATU AHAL IZATEKO, KONFIANTZA IZAN BEHAR DU BERE BURUARENGAN, BESTEENGAN ETA INGURATZEN DUEN ESPAZIOARENGAN.**

# LEHEN ZIKLOA
# 0-3 URTE
# LAUDIO TXIKI



*Inon bada, Haur Hezkuntzan jolas autonomoa da ikaskuntza aktiboaren oinarri nagusia.*

*Umearen lehenengoko urteetan, esploratzailea izanik, jolasaren bitartez ukitzen eta ikertzen du; horrez gain, bizi, sentitu, ikasi eta bere burua adierazten du gorputz osoa erabiliz.*

*Bestalde, ezin dugu ahantzi kasu askotan euskalduntze-prozesua ere etapa horretan hasten dela, eta garrantzitsua dela haurrak hizkuntza-gaitasuna gero eta hobeto garatzea, era egokian egin dezan aurrera. Beraz, Haur Hezkuntzan, haurren hizkuntza-gaitasunak garatzen laguntzea betekizun nagusi bilakatzen da.*



# HORRETARAKO LAUDIO IKASTOLAK BEHARREZKO GARRANTZIA EMATEN DIE ONDOKO ATALEI:

## 1.- HAURRAREN MUGIMENDU ASKEA

*Haurra gai da bere motrizitate osoa bere kabuz eraikitzeko. Era honetan haur seguruak eta bere buruarengan konfiantza dutenak haziko dira.*



## 2.- KALITATEZKO ZAINTZA

*Jateko, garbitzeko eta lo egiteko uneak haurraren eta helduaren arteko lotura handiko uneak dira. Honegatik momentu hauek mimoz, kontuz, gozo egin behar dugu haurraren eta helduon arteko lotura estutzeko.*



## 3.- SOZIALIZAZIORAKO TRANTSIZIO BAKETSUA

*Sozializazioa helburua da, baina talde baten parte izateak bere denbora behar du. Urratsak nork bere erritmoan egokitzea eta modu baketsuan izatea garrantzitsua da, gizarteratze osasuntsu bat izateko.*



## 4.- HAURRA BERE IDENTITATE ETA EZAGUPENEN ERAIKITZAILEA DA

*Ikastolan haurra da egiten diren ekintzen ardatza; entzute eta ikuste hitzak klabeak izango dira esperimentazio edota ekintzetan.*



LEHENDABIZIKO URTEETAN SEGURU ETA KONFIANTZA HANDIAREKIN BIZI DAITEZKEEN HAURREK GERORA ESTRATEGIAK GARATZEKO AUKERA GEHIAGO IZANGO DITUZTE. HELDUA BIDELAGUN IZANGO DA HAURRARAREN IBILBIDE HORRETAN ETA HAURRARAREN BENETAKO ERREALITATERA HURBILDUKO DA.





# BIGARREN ZIKLOA 3-6 URTE



*Hurrengo urteetan ere, bere hezkuntza ibilbidean, bere buruarengan, besteengan eta inguruan konfiantza izaten lagunduko dugu umea. Horrela, beraren gaitasunak ahalik eta ondoen garatu ahal izango ditu, helbururik garrantzitsuena horixe baita.*

*Edukietan oinarritutako hezkuntza-ereduak albo batera utzi, eta gaitasunetan eta bizipenetan oinarritutako ereduetara jo nahi dugu. Ikasleak bere buruarengan konfiantza sentitu behar du, konfiantza izan hezitzaileengan, konfiantza ikaskideengan, eta konfiantza testuinguru horretan biziko dituen esperientzia guztietan. Hori bermatzen denean, ikaslea prest dago edozein ikaste-irakaste prozesu modu egokian barneratzeko, esplorazioaren bitartez, eta aldi berean, autonomia garatuz. Modu horretan, bakoitzak bere erritmoan gauza interesgarriagoak egiteko aukera izan dezake. Horretarako ikastolari dagokio baldintzak sortzea eta umearen bidelagun izatea.*

*Espazioan egiten duen ikerketa horretan eta besteekin sortuko dituen harremanetan hasiko da ikaslearen ikaste-prozesua, eta irakasleen irakaste-prozesua. Garatu ahala, agerian geldituko dira haurraren gaitasunak, baina baita zailtasunak ere. Modu egokian esku hartu ahal izateko, irakaslea bidelagun izango da, ikasleari bere burua garatzen lagunduko dioten baldintzak sortuz.*

# ADIN HAUETAKO HAURREK ETENGABE MUGITZEKO BEHARRA DUTE.

*Haurrak bere gorputz-trebetasunak frogatu behar ditu, baina, aldi berean, mugak ezagutu behar ditu. Objektuen ezaugarriez jabetzen da, kontrasteez baliatzen da.*

*Keinuen eta begiradaren bitarteko adierazpena oraindik indartsua da, baina aho-hizkuntzaren bitartez erabat aberasten du bere komunikazio-gaitasuna. Ingurua ezagutzeak eta elkarrekintza sozialak laguntzen diote, ezagutzen duen hitzen kopurua handitzen eta esaldiak hobeto egituratzen eta artikulatzen.*



# HELDUENGANAKO MENDEKOTASUNA GUTXITU ETA BERE AUTONOMIA GEHITU EGITEN DU.

*Ziklo honetan, lehen baino askoz hobeto ezagutzen du bizi den ingurua, eta horri esker, bere buruari, naturari eta bizimoduei buruzko gauza berriak ikasten ditu.*

*Egoera horrek haurrak komunikatzeko eta errealitatea adierazteko tresna berria gara ditzan bultzatzen du. Jolas sinbolikoa oso garrantzitsua da norberaren taldearen bizitzan. Apurka haurrak hobeto bereiz dezake zer den erreala eta zer berak asmatua. Bere azalpenek sinesgarritasun handiagoa dute.*



*Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua da, gaitasunen garapenean oinarritua ikaskuntza esanguratsuaren eta ikasle aktiboaren bila doana, aniztasuna errespetatuz, balioen eta jarreren hezkuntzarekin konprometitzen dena.*

EUSKAL HERRIAN ETA EUSKAL HERRIKO PROIEKTUA DA. JATORRIZ EUSKALDUN NAHIZ ERDALDUN DIREN HAURRAK EUSKARAZ ETA CURRICULUM BATERATUAN HEZTEKO PROPOSAMENAREKIN, EUSKAL DIMENTSIOARI GARRANTZIA EMATEN DIONA.

*Euskal kultura-ondarea gordetzeko eta luzatzeko konpromisoarekin, euskal kulturaren elementu bereziak sistematikoki lantzen eta esplizituki adierazten dira ikasgaietan. Euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea eginez.*

*Proiektu honek haurrari bere ikaste-prozesuaren protagonismoa hartzea, ziurtasuna bermatzea eta autonomia bultzatu nahi dio. Horretarako, ezinbesteko garrantzia eman behar diegu esplorazioari, manipulazioari eta jolasari.*

*Bere gaitasunetan eta garapenean oinarritutako ebaluazio jarraia egingo zaio umeari, beraren ekintzetan, ikerkuntzan eta asmakizunetan murgilduta.*



# OINARRI PEDAGOGIKOAK



*Hau guztia garatzeko Konfiantzaren Pedagogia dugu oinarri, baina ezin ahaz ditzakegu umea ulertzeko ditugun beste hainbat korronte ere (Emmy Pikler, Magaluzzi, Loczy…), beste proiektu batzuekin uztartzen ditugunak:*

# BULARRETIK MINTZORA

Euskal tradiziozko kanta, olerkitxo eta ipuinak erabilita, umeak hizkuntzaren fonemak eta intonazioa edota doinua barneratzen ditu. Hau guztia, jolasaren plazerraz barneratzen da. Aldi berean, ikasle nagusiekin irakurketa zaletasuna bultzatzen eta liburuekin gozatzen laguntzen du.

# INGELESA

4 urtetik aurrera lantzen dugu, Carlos Artigalen gidaritzapean eta Ikastolen Elkarteko Ready for a Story ikasmaterialak erabiliz, hizkuntzak hitz eginez ikasten direnez, lehen egunetik egoera esanguratsu eta errealak erabiliz, beraien komunikazio konpetentzia garatzeari ekiten diote.

# PSIKOMOTRIZITATEA

Psikomotrizitatea Bernard Aucouturierren teorian oinarritzen dugu: jolasen bidez eta giro seguru batean, umeek beren trebezi motorikoak, emozioak, sentipenak eta ezagutzak adierazten dituzte, modu libre eta bat-batekoan.



# IKT (INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK)

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan teknologia berrietara hurbilpena egiten dugu, gelan ordenagailuak izanda eta umeei baliabide teknologiko anitzak eskeinita.



IRAKASKUNTZA DINAMIKOA DENEZ, LAUDIO IKASTOLAKO HAUR HEZKUNTZAKO HEZITZAILEAK ETENGABEKO PRESTAKUNTZAN ARI GARA.



KORRONTE ANITZEN BERRIKUNTZA PEDAGOGIKO ETA IDEOLOGIKOEKIN HAUSNARKETAN, IKERKETAN ETA PRESTAKUNTZAN ARI GARA, GEUREA HOBETU AHAL IZATEKO:

*Konfiantzaren Pedagogia, Emmy Pikler-ek Lóczy Eskolan edo Loris Malaguzzi-k Reggio Emilia Eskolan abiatutako berrikuntzak, Hik Hasi aldizkaria eta Emausekin batera sortutako materialen berrerabilpenerako Birsortu proiektua...*



# IRTEERA ETA BARNETEGIAK



*Ikastolan ez ezik, Ikastolatik kanpo ere hazi eta hezten gara, horretarako irteerak (2 urtetik aurrera) eta barnetegiak (5 urtetan) baditugu, gelan landutako edukiekin bat egiten dutenak. Garrantzi handikoak dira eta helburu zehatz batzuekin aurrera daramatzagu.*

-EUSKARAREN ERABILERA BULTZATU.

-IKASKIDEEKIN ETA IRAKASLEEKIN HARREMANAK SENDOTU ETA BESTE IKASTETXEETAKOEKIN HARREMAN BERRIAK SORTU.

-EUSKAL KULTURA BIZI: BASERRIA (BERTAKO BIZITZA, LANDARETZA, ANIMALIAK, TRESNERIA, OHITURAK ...)

-NATURAK DUEN GARRANTZIAZ JABETU.

*Eguneko irteerak izaten dira, barnetegia salbu (5 urtetan), gau bat etxetik kanpo pasatzen dutelarik.*

# FUNTZIONAMENDUA



*Adin tarte bakoitzaren neurrirako funtzionamendu eskaintza dugu.*

# ZERBITZUAK

## 1.- ASISTENTZIALA

*Ohiko eskola egutegi eta ordutegia familia eta lanarekin bateratzeko aukera da. Hau da, eskola egunetan ikaslearen ordutegia 7:30etik 18:30era luzatzeko aukera ematen du zerbitzuak. Aukera hau 2 urtetik aurrera eskaintzen da. Noizbehinkako erabilpena (egun solteak) edo jarraia (hilabete osoa) ahalbidetzen du. Funtzionamendua eta kuotak ikaslearen adinaren arabera arautzen dira.*

## 2.- HAURTZAINDEGIA

*2 urteko haurrek haurtzaindegi egunetan, Ikastolako gainerako etapatan eskola egunak ez direnetan, erabili dezakete zerbitzua. Aukera honek ordutegi asistentziala eskaintzen du, 7:30etik 17:30era, eta erabilpena hilabeteka ordaindu behar da.*

## 3.- JANTOKIA

*Zerbitzua Ikastola zabalik dagoen egun guztietan erabili daiteke. Erabilpena eta ordainketa noizbehinkakoa (egun solteak) edo jarraia (hilabete edo ikasturte osoa) izan daiteke.*

# ORDUTEGIA

## 0 ETA 1 URTE

*Haurtzaindegi zerbitzuetako egutegia dute, hau da, irailetik uztailera arteko funtzionamendua, salbu egutegi laboraleko jaiak. 5 orduko edo 8 orduko haurtzaindegi zerbitzua aukeran dago.*

## 2 URTE

*Ikastolako gainerako mailatan dugun eskola egutegia dugu, baina, aldi berean, 0 eta 1 urteko gelatan eskainitako aukerak ere mantentzen ditugu, ordutegi asistentziala edota haurtzaindegi egutegia.*

*2 urteko ordutegi asistentzialak eskola egutegian haurraren ordutegia Laudio Txikiko ordutegira, 07:30etik 17:30era, zabaltzeko aukera eskaintzen du. Gosaria eta askaria barne. Hilabete osoa edo egun solteetan ere erabili daiteke.*

*2 urteko gelaren haurtzaindegi aukerak, haurraren egutegi eta ordutegia 0 eta 1 urteko gelatako berdina izatea ahalbidetzen du. Hau da, Ikastolako gainerako mailatan jai eguna izanda, Laudio Txiki zabalik dagoen egunetan erabiltzeko aukera da, irailetik uztailera, eta ordutegia 07:30etik 17:30era izanik. Hilabete osoa aukera daiteke.*

## 3 URTEKO MAILATIK AURRERA

*Eskola egunetan ordutegi asistentziala 07:30etik 09:00etara eskaintzen da goizetan, egun solteetarako edo hilabeteka.*

## **0-1 URTE** IRAILETIK UZTAILERA

| ASISTENTZIALA | |
|---|---|
| 07:30 | 17:30 |

## **2 URTE** IRAILETIK EKAINERA

| ASISTEN TZIALA | ESKOLARRA | JANTOKIA | ESKOLARRA | ASISTEN TZIALA |
|---|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>GOSARIA<br>(08:30 arte) | 09:00-10:00<br>sarrera malgua<br>10:00-12:15<br>LEKTIBOA | 12:15<br>BAZKARIA<br>HIGIENEA<br>LOKULUXKA | 14:30-16:15<br>LEKTIBOA | 16:15-17:30<br>ASKARIA<br>(16:30EAN) |

## **3 URTE** IRAILETIK EKAINERA

| ASISTENTZIALA | ESKOLARRA | JANTOKIA | ESKOLARRA |
|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>GOSARIA<br>(08:30 arte) | 09:00-09:30<br>sarrera malgua<br>09:30-12:20<br>LEKTIBOA | 12:20<br>BAZKARIA<br>HIGIENEA<br>LOKULUXKA | 14:30-16:20 |

## **4 URTE** IRAILETIK EKAINERA

| ASISTENTZIALA | ESKOLARRA | JANTOKIA | ESKOLARRA |
|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>GOSARIA<br>(08:30 arte) | 09:00-12:25<br>LEKTIBOA | 12:25<br>BAZKARIA<br>HIGIENEA | 14:30-16:25 |

## **5 URTE** IRAILETIK EKAINERA

| ASISTENTZIALA | ESKOLARRA | JANTOKIA | ESKOLARRA |
|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>GOSARIA<br>(08:30 arte) | 09:00-12:30<br>LEKTIBOA | 12:30<br>BAZKARIA<br>HIGIENEA | 14:30-16:30 |

# HARREMAN BIDEAK



# LEHEN ZIKLOA (0-3 URTE)

## TELEFONOA

*94 672 78 95*

**07:30etik 09:00etara**

# BIGARREN ZIKLOA (3-6 URTE)

## TELEFONOA

*94 672 62 77*

**08:30etik 09:00etara**

# IDAZKARITZA

*94 672 67 37*

Egunero gurekin duzuen harremanaz gain, elkarrizketa luzeago bat izan nahi baduzue, tutore bakoitzarekin adostu beharko da hitzordua.

***www.laudioikastola.eus***



LAUDIO
# ikastola

EDUCACIÓN INFANTIL
# 0-6 años

**(TODAS LAS FOTOS QUE APARECEN EN ESTA GUÍA SE HA TOMADO EN LAS AULAS DE ED. INFANTIL DE LAUDIO IKASTOLA. LAS ESCENAS QUE RECOGEN CORRESPONDEN A LA ACTIVIDAD DIARIA DE LA IKASTOLA)**

*Fotos: Fotografías Optura*

Gracias a todas los que dieron el consentimiento para aparecer.

© LAUDIO IKASTOLA, 2020

1.- INTRODUCCIÓN 8
2.- DE CASA A LA IKASTOLA 12
3.- 0-3 AÑOS 18
4.- 3-6 AÑOS 24
5.- PRINCIPIOS PEDAGÓGICOS 30
6.- SALIDAS Y EXCURSIONES 36
7.- FUNCIONAMIENTO 38
8.- MEDIOS DE COMUNICACIÓN 42





# OTRA FORMA DE EDUCAR:

## *aprendizaje activo*

*Desde que escolarizamos bebés en la Ikastola, ha cambiado también la labor y la forma de trabajar de la Ikastola.*

*Hemos analizado el desarrollo de los niños y niñas desde otra perspectiva y eso lo hemos convertido en nuestro principio.*

## EN LOS PRIMEROS AÑOS DE LAS PERSONAS SE DESARROLLAN LAS BASES DE LA PERSONALIDAD.

*Niñas y niños poseen desde que nacen extraordinarias habilidades propias para crecer, madurar y aprender.*

*En Laudio Ikastola, nos estamos preparando para responder mejor a las necesidades tanto de niñas y niños como de padres y madres en este tramo de edades.*


RACING
SAFARI
TAXI
FRUTÍNTER

*Aunque se trata de una sola etapa, dividimos la Educación Infantil, 0-6 años, en dos ciclos teniendo en cuenta la edad del alumnado.*

## PRIMER CICLO (EI1)

*Niñas y niños de 0-3 años*



# SEGUNDO CICLO (EI2)

*Niñas y niños de 3-6 años*



# DE CASA A LA IKASTOLA



*Cada niño y niña se aleja del ambiente de casa y se tiene que integrar en la Ikastola, un sitio desconocido. Se le ofrecerán diferentes recursos para que sea capaz de gozar con las nuevas oportunidades que encontrará aquí. En la Ikastola queremos además garantizar el bienestar de niñas y niños y crear un ambiente tranquilo y estable para que este proceso sea lo más agradable posible.*

*Al venir a la Ikastola niños y niñas acceden a la experiencia de estar en un mundo nuevo. Para ellos es un cambio muy grande ya que vivirán situaciones hasta ahora desconocidas. Conocerán personas diferentes, profesorado, nuevas compañeras y compañeros, es decir, de repente deberán construir habilidades y estrategias para convertirse en miembros de un gran grupo.*

*Estas experiencias, serán útiles para construir su personalidad. El trabajo de la Ikastola es ofrecer recursos adecuados, adaptados a las necesidades de cada uno: un espacio adecuado donde podrán desarrollar su día a día, material diverso y diferente para poder explorar, lugares para poder emplearse en la experimentación, lugares tranquilos, recursos para la representación y los juegos simbólicos ...*

# LA EDUCACIÓN INFANTIL TIENE ESPECIAL IMPORTANCIA EN TODO EL DESARROLLO DE NIÑOS Y NIÑAS

EN ESTA ETAPA COMIENZAN A DESARROLLAR LAS CAPACIDADES INTELECTUALES, LOS RASGOS DE LA PERSONALIDAD, SUS CAPACIDADES FÍSICAS Y ESTABLECEN LAS BASES DE SU SOCIALIZACIÓN Y FORMA DE RELACIONARSE.



*En estos primeros años, la familia tiene una gran tarea, junto a la Ikastola, en la educación de niños y niñas, y en el proyecto de Laudio Ikastola se concreta nuestra relación con madres y padres, el trabajo en equipo y las líneas generales de intervención.*

*Las bases de esta práctica pedagógica compartida son las siguientes:*

PROVOCACIONES/PROPUESTAS
JUEGO
OBSERVACIÓN
EXPERIMENTACIÓN

Y TODOS ELLOS SE REALIZARÁN TANTO DE FORMA INDIVIDUAL, COMO GRUPAL.

*Siguiendo las propuestas de la Pedagogía de la Confianza hemos reestructurado los edificios de Educación Infantil y creado espacios adaptables a las necesidades de niñas y niños. La tarea principal de las educadoras de la Ikastola es crear los recursos adecuados para ayudar a construir esa confianza.*

*Esa premisa es la base de la Educación Infantil y, para ello, el cuidado y la observación de niñas y niños serán claves, así como poner tanto los espacios como los recursos al servicio del proyecto pedagógico.*





**PARA QUE NIÑOS Y NIÑAS PUEDAN GESTIONAR SUS DIFICULTADES Y DESARROLLAR TODAS SUS CAPACIDADES, TIENEN QUE TENER CONFIANZA EN ELLAS MISMAS, EN LOS DEMÁS Y EN EL ESPACIO QUE LES RODEA.**

# PRIMER CICLO 0-3 AÑOS LAUDIO TXIKI



*En la Educación Infantil en concreto, la base principal del aprendizaje activo es el juego autónomo. En los primeros años niños y niñas son exploradoras, tocan e investigan mediante el juego; y además viven, sienten, aprenden y se expresan utilizando todo su cuerpo.*

*Por otro lado, no podemos olvidar que en muchos casos el proceso de euskaldunización comienza también en esa etapa, y que es importante que niños y niñas desarrollen cada vez mejor la capacidad del lenguaje para que puedan avanzar de forma adecuada. Por lo tanto, en Educación Infantil ayudar a desarrollar las capacidades del lenguaje de niños y niñas se convierte en una tarea prioritaria.*



# PARA ELLO LA IKASTOLA LE DA MUCHA IMPORTANCIA A LOS SIGUIENTES APARTADOS:

## 1.- EL MOVIMIENTO LIBRE:

*Niñas y niños son capaces de construir toda su motricidad solos. De esta manera crecerán niños y niñas seguras y con confianza con ellos mismos.*



## 2.- CUIDADO DE CALIDAD:

*Los momentos de la comida, aseo y sueño son momentos muy íntimos entre el niño o la niña y la persona adulta. Estos momentos tienen que realizarse con mimo, con cuidado y dulcemente porque la unión entre el niño o la niña y la persona adulta se estrecha en ellos.*



## 3.- TRANSICION TRANQUILA PARA LA SOCIALIZACIÓN:

*La socialización es el objetivo, pero el paso de ser miembro de un grupo requiere su tiempo. Es importante que lo hagan a su ritmo y de forma tranquila, para que sea una socialización sana.*



## 4.- NIÑAS Y NIÑOS CONSTRUYEN SU PROPIA IDENTIDAD Y CONOCIMIENTO:

*El eje de las actividades que se realizan en la Ikastola es el niño y la niña; la escucha y la observación serán claves en la experimentación y en las actividades.*



LOS NIÑOS Y NIÑAS QUE EN LOS PRIMEROS AÑOS PUEDEN VIVIR SEGUROS Y CON GRAN CONFIANZA, EN EL FUTURO TENDRÁN MÁS OPORTUNIDADES DE DESAROLLAR ESTRATEGIAS. LAS PERSONAS ADULTAS SERÁN COMPAÑERAS DE VIAJE EN ESE RECORRIDO Y SE APROXIMARÁN A LA AUTÉNTICA REALIDAD DEL NIÑO O LA NIÑA.





# SEGUNDO CICLO 3-6 AÑOS



*A lo largo del itinerario escolar, en los próximos años del niño o la niña, continuaremos colaborando para que confíe en sí mismo, en los demás y en el entorno. Así podrá desarrollar sus capacidades de la mejor manera posible, ya que es el objetivo principal.*

*Queremos dejar de lado los patrones educativos basados en los contenidos, y desarrollar patrones basados en las capacidades y vivencias. El alumnado tiene que sentir confianza en sí mismo, tener confianza en las educadoras, confianza en los compañeros, y confianza en todas las experiencias que vivirá en ese entorno. Cuando se asegura esto, el alumnado está preparado para que cualquier proceso de aprendizaje y enseñanza se realice de manera adecuada, desarrollando a su vez la autonomía mediante la exploración. Así, cada uno a su ritmo, tendrá la oportunidad de hacer cosas más interesantes. De este modo, corresponde a la Ikastola crear condiciones para ello y ser compañera de viaje del niño o la niña.*

*En la investigación que realiza en el espacio y en la relación que creará con los demás empezará el proceso de aprendizaje del alumnado, y el proceso de enseñanza del profesorado. A medida que se vaya desarrollando, quedarán al descubierto las capacidades de niños y niñas, pero también las dificultades. Para poder ayudarles en esos momentos de forma adecuada, es decir, para crear condiciones que ayuden a su autodesarrollo, el profesorado será compañero de viaje.*

## LOS NIÑOS Y NIÑAS DE ESTAS EDADES TIENEN LA NECESIDAD DE MOVERSE CONTINUAMENTE.

*El niño o la niña tiene que probar sus habilidades corporales, pero al mismo tiempo, tiene que conocer sus limitaciones. Se dan cuenta de las características de los objetos, hacen uso de los contrastes.*

*La expresión mediante gestos y miradas es todavía notable, pero mediante el lenguaje oral enriquecen del todo su capacidad de comunicación.Conocer el entorno y la interacción social les ayuda a aumentar el número de palabras que conocen y a estructurar y articular mejor las frases.*



# TIENEN QUE REDUCIR LA DEPENDENCIA HACIA LAS PERSONAS ADULTAS Y AUMENTAR SU AUTONOMÍA.

*En este ciclo conocen mejor que antes el entorno en el que viven y, gracias a ello, aprenden cosas nuevas sobre sí mismos, la naturaleza y modos de vida.*

*Esa situación lleva a niños y niñas a desarrollar nuevas herramientas para comunicarse y expresar la realidad.*
*El juego simbólico es muy importante en la vida de grupo de cada cual. Poco a poco niños y niñas pueden distinguir qué es real y qué es inventado por ellos mismos. Sus explicaciones tienen más credibilidad.*



*Es un proyecto que tiene en cuenta al niño o la niña en su totalidad, y que basándose en el desarrollo de las habilidades, busca el aprendizaje significativo y que el alumnado sea activo, respetando la diversidad, y comprometiéndose con la educación en valores y actitudes.*

ES UN PROYECTO DE Y PARA EUSKAL HERRIA. PROPONE EDUCAR EN EUSKERA TANTO A EUSKALDUNES COMO A CASTELLANOPARLANTES CON UN CURRICULUM UNIFICADO QUE DÉ ESPECIAL IMPORTANCIA A SU DIMENSIÓN VASCA.

*Con el compromiso de guardar y alargar el patrimonio cultural euskaldún, en las unidades didácticas se trabajan de manera sistemática y se explican de manera explícita los elementos especiales de la cultura vasca. Partiendo de las características euskaldunes, abrimos camino a la cultura universal.*

*Queremos que niñas y niños sean protagonistas de su proceso de aprendizaje, apoyando la seguridad y promoviendo la autonomía.*

*Realizamos una evaluación continua de niños y niñas basada en su capacidad y desarrollo a través de sus actividades, investigaciones e invenciones.*



# PRINCIPIOS PEDAGÓGICOS



*Para desarrollar todo eso tenemos como base la Pedagogía de la Confianza, que complementamos con otras corrientes (Emmy Pikler, Magaluzzi, Loczy...) para entender a niñas y niños y que además enriquecemos con otros proyectos:*

## "BULARRETIK MINTZORA"

A través de canciones, poesías y cuentos de la tradición vasca, niños y niñas interiorizan los fonemas, entonación y acento de la lengua. Todo eso, se interioriza mediante el placer del juego. Del mismo modo, promueve junto al alumnado mayor la afición por la lectura y ayuda a disfrutar con los libros.

## INGLÉS

Lo trabajamos a partir de los 4 años, con la dirección de Carlos Artigal y utilizando los materiales escolares de Ikastolen Elkartea, Ready for a Story. Como las lenguas se aprenden hablándolas, desde el primer día empiezan a desarrollar su competencia comunicativa utilizando situaciones significativas y reales.

# PSICOMOTRICIDAD

La psicomotricidad la basamos en la teoría de Bernard Aucouturier: mediante juegos y en un ambiente seguro, niños y niñas expresan su habilidad motora, emociones, sentimientos y conocimientos, de un modo libre y expontáneo.



# TIC (TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN)

En el segundo ciclo de Educación Infantil realizamos una aproximación a las nuevas tecnologías, para lo que contamos con ordenadores en las aulas ofreciendo además a niñas y niños diversos recursos tecnológicos.



CREEMOS QUE LA ENSEÑANZA ES ACTIVA,
POR ESO  LAS EDUCADORAS DE ECUCACIÓN
INFANTIL DE LAUDIO IKASTOLA ACTUALIZAMOS
CONSTANTEMENTE NUESTRA FORMACIÓN.



## REFLEXIONAMOS, INVESTIGAMOS Y NOS FORMAMOS EN LAS INNOVACIONES DE DIFERENTES CORRIENTES PEDAGÓGICAS Y DE PENSAMIENTO PARA MEJORAR NUESTRA PROPIA PROPUESTA:

*Pedagogía de la Confianza, las innovaciones que Emmy Pikler impulsó en la escuela Lóczy o las de Loris Malaguzzi en la Escuela Reggio Emilia, el proyecto Birsortu creado en colaboración con la revista Hik Hasi y Emaús para la reutilización de materiales...*



# SALIDAS Y EXCURSIONES



*Además de en la Ikastola, fuera de ella también crecemos y nos educamos, para ello tenemos salidas (a partir de 2 años) y barnetegis (estancias en albergues a partir de 5 años). Estos se unifican con los contenidos que se trabajan en el aula. Tienen mucha importancia y las llevamos a cabo a partir de unos objetivos específicos:*

-PROMOVER EL USO DEL EUSKERA.

-FORTALECER LAS RELACIONES CON LAS COMPAÑERAS Y COMPAÑEROS DE CLASE Y CON EL PROFESORADO, Y CREAR NUEVAS RELACIONES CON GENTE DE OTRAS ESCUELAS.

-VIVIR LA CULTURA VASCA: EL CASERÍO (LA VIDA ALLÍ, VEGETACIÓN, ANIMALES, HERRAMIENTAS, COSTUMBRES ...).

-DARNOS CUENTA DE LA IMPORTANCIA QUE TIENE LA NATURALEZA.

*Suelen ser salidas de un día, menos a los 5 años, que pasan una noche fuera de casa.*

# FUNCIONAMIENTO



*Tenemos la oferta del funcionamiento a la medida de cada edad:*

# SERVICIOS

## 1.- ASISTENCIAL

*Es la opción para conciliar el calendario y horario escolar con las necesidades laborales y familiares. Es decir, el servicio ofrece la posibilidad de ampliar el horario del alumnado de 7:30 a 18:30 los días lectivos. Esta opción se ofrece a partir de 2 años. Posibilita la utilización esporádica (días sueltos) o continua (meses completos). El funcionamiento y cuotas se rigen en función de la edad del alumnado.*

## 2.- GUARDERÍA

*El alumnado de 2 años puede utilizar este servicio los días de guardería, es decir, los días que no son lectivos en el resto de etapas de la Ikastola. Esta opción ofrece horario asistencial, de 7:30 a 17:30, y debe abonarse de forma mensual.*

## 3.- COMEDOR

*Puede utilizarse el servicio todos los días que la Ikastola permanece abierta. La utilización y cuotas puede ser esporádica (días sueltos) o continua (meses o curso completo).*

# HORARIO

## 0 Y 1 AÑO

*Cuentan con el calendario de los servicios de guardería, es decir, ofrecen servicio de setiembre a julio excepto los días festivos del calendario laboral. Se puede escoger entre 5 u 8 horas de servicio de guardería.*

## 2 AÑOS

*Ofrece el calendario escolar del resto de cursos de la Ikastola pero, al mismo tiempo, se mantienen también las posibilidades que se ofrecen en las aulas de 0 y 1 año, horario asistencial y calendario de guardería.*

*Durante el calendario escolar, el horario asistencial de 2 años ofrece la opción de ampliar el horario de la niña o el niño al horario de Laudio Txiki, de 07:30 a 17:30. Incluye desayuno y merienda y se puede utilizar todo el mes o en días sueltos.*

*La opción de guardería en 2 años posibilita que el calendario y el horario de la niña o el niño sea el mismo de las aulas de 0 y 1 año, es decir, amplía la utilización del servicio de setiembre a julio con horario de 07:30 a 17:30 incluyendo los días que en el resto de niveles educativos de la Ikastola son festivos o vacaciones. Puede utilizarse de forma mensual.*

## 3 AÑOS EN ADELANTE

*Los días lectivos se ofrece horario asistencial por las mañanas de 07:30 a 09:00, de forma esporádica (días sueltos) o mensual.*

## **0-1 AÑOS** DE SEPTIEMBRE A JULIO

| ASISTENCIAL | |
|---|---|
| 07:30 | 17:30 |

## **2 AÑOS** DE SEPTIEMBRE A JUNIO

| ASISTENCIAL | ESCOLAR | COMEDOR | ESCOLAR | ASISTENCIAL |
|---|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>DESAYUNO<br>(hasta las 08:30) | 09:00-10:00<br>entrada flexible<br>10:00-12:15<br>LECTIVO | 12:15<br>COMIDA<br>HIGIENE<br>SIESTA | 14:30-16:15<br>LECTIVO | 16:15-17:30<br>MERIENDA<br>(a las 16:30) |

## **3 AÑOS** DE SEPTIEMBRE A JUNIO

| ASISTENCIAL | ESCOLAR | COMEDOR | ESCOLAR |
|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>DESAYUNO<br>(hasta las 08:30) | 09:00-09:30<br>entrada flexible<br>09:30-12:20<br>LECTIVO | 12:20<br>COMIDA<br>HIGIENE<br>SIESTA | 14:30-16:20 |

## **4 AÑOS** DE SEPTIEMBRE A JUNIO

| ASISTENCIAL | ESCOLAR | COMEDOR | ESCOLAR |
|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>DESAYUNO<br>(hasta las 08:30) | 09:00-12:25<br>LECTIVO | 12:25<br>COMIDA<br>HIGIENE | 14:30-16:25 |

## **5 AÑOS** DE SEPTIEMBRE A JUNIO

| ASISTENCIAL | ESCOLAR | COMEDOR | ESCOLAR |
|---|---|---|---|
| 07:30-09:00<br>DESAYUNO<br>(hasta las 08:30) | 09:00-12:30<br>LECTIVO | 12:30<br>COMIDA<br>HIGIENE | 14:30-16:30 |

# MEDIOS DE COMUNICACIÓN



# PRIMER CICLO (0-3 AÑOS)

**TELÉFONO**

*94 672 78 95*

**desde las 07:30 hasta las 09:00**

# SEGUNDO CICLO (3-6 AÑOS)

**TELÉFONO**

*94 672 62 77*

**desde las 08:30 hasta las 09:00**

# SECRETARÍA

*94 672 67 37*

Además de la relación diaria, si la familia desea mantener una conversación más prolongada, debe acordar una cita con la tutora.

***www.laudioikastola.eus***